

## DEFINIZIOAK

# UDALPLAN, INFORMAZIO GEOGRAFIKOAREN SISTEMA ETA LURRALDE-DATUEN BANKUA (200206)

## **I DATU OROKORRAK:**

---

### **Udalerrien azalera**

Udalerriko azalera, udalerriko azalera osoari dagokio hektareatan neurtua, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera.

### **Plangintzaren dokumentua:**

Indarrean dagoen udal hirigintza-plangintzaren dokumentua, Udalplaneko fitxa egiteko oinarri izango dena.

### **Eremu funtzionala**

EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak udalerrri bakoitzarentzat ezartzen duen eremu funtzionala.

## **II LURZORUAREN KALIFIKAZIOA:**

---

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bakoitzarentzat indarrean dagoen plangintza orokorrak ezarritako lurzoru kalifikazioari dagokiona. Udalerriko lurzoruak honako kalifikazio hauetariko bat izan dezake:

1. Bizitegiatarako lurzorua
2. Ekonomia jardueretarako lurzorua
3. Sistema orokorrekin okupatutako lurzorua
4. Lurzoru urbanizaezina

### **Bizitegiatarako lurzorua**

Plangintzak erabateko bizitegi erabilera eman dion lurzorua.

Bizitegi eremu bakoitzerako hektareatan neurtutako azalera grafikoa, Sistema Orokorrei dagokiena kenduta; egungo etxebizitza kopurua, urte horretako urtarrilekoa oinarri, baita aurreikusitako etxebizitza kopurua ere. Egiteko dauden etxebizitzaren artean honako etxebizitzak ezberdindu behar dira: babes ofizialekoak, tasatuak eta libreak. Halaber, (t) urtean udalerrian egiteko dauden etxebizitzaren lizentzia kopurua adierazi behar da.

Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legean ezarritako lurzoru motaren arabera antolatutako arlo ezberdinak jasotzen ditu:

- a) Hiri-lurzorua:

- a.1. Hiri-lurzoru kontsolidatua
- a.2. Hiri-lurzoru ez kontsolidatua
- b) Lurzoru urbanizagarria
  - b.1. Lurzoru urbanizagarri sektorizatua
  - b.2. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatua
- c) Lurzoru urbaniezezina( landa-guneak)

### **Ekonomia jardueretarako lurzoruaren datuak**

Plangintza orokorrean industria edo hirugarren sektoreko kalifikazioa dutenak adierazten dira. Gainera, ekonomia jardueretarako lurzoru gisa jasotzen da portu eta aireportuen logistikarako erabiltzen dituzten guneak.

Ekonomia jardueretarako industria eta hirugarren sektoreko kalifikazioa duten lurzoruaren azalera hektareatan neurtzen da. Ezberdindu egingo dugu okupatutako eta hutsik dagoen azalera. Jarduera industrialaren duen okupatutako lurzoruaren eraikinekin eta jarduera produktiboetako garapen funtzionalerako erabiltzen den lurzoru libreak osatzen dute. Gainerako lurzoruaren azalera huts kontsideratuko dugu.

Bizitegi-lurzoruarekin gertatzen den legez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 10 eta 11 artikulua ezarritakoaren arabera sailkatzen da.

### **Sistema orokorrekin okupatutako lurzoruak**

Plangintza Orokorrean jasotzen diren arlo guztien inguruko azalera: Espazio Libreen Sistema orokorrak, Ekipamenduak, oinarrizko azpiegiturak, ur ibilgua edo garraio eta komunikazioetako azpiegiturak. Era berean, azken sistema orokorren beste azpisailkapen bat dute: Errepidekoa, AHT, trenbideak, portuak eta aireportuak.

### **Lurzoru urbanizaezina**

Lurzoru urbanizaezina Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotzen diren sailkapenen arabera egituratzen da( behin betiko onarpena otsailaren 11ko 28/1997ko Dekretu bidez): Honako hau da sailkapena:

- Babes berezia
- Ingurumenaren hobekuntza
- Basogintza
- Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala
- Mendi-larreak
- Azaleko urak babestekoa
- Inolako erabilera jakinik gabekoa

Beren-beregi jasotzen dira Erauzketa-jarduerak eta nekazaritza-guneak( hauetan dauden etxebizitzak eta baimendutakoak adierazten dira).